



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2016ko APIRILAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2016ko apirilaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Xabier Mugika Letamendia  
*Koldobika Jauregi Zinkunegi*

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
-2016ko apirilaren 5ean egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Tolomendiri 2016 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
5. **M.K.M. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
6. **Alkizako Urruzola baserriaren etxebizitza berriaren lehen erabilera baimena eskaera, M.A.**
7. **Beste batzuk.**
8. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2016ko apirilaren 5eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

08/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 7koa, J.M.A.I. jaunari 300 eurotako isuna jartzea, udal jabetzako landa bide eta pisten erabilera berezia erregulatzen duen araudiaren 10art.-an dioenaren babesean, ebazten duena.

09/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 19an, Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena K.M. jaunari esleitzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 20,42    |
| RECAMBIOS IBARRA      | 14,24    |
| EUSKALTEL             | 63,35    |
| AUDAX                 | 177,28   |
| CORREOS               | 16,64    |
| AUDAX                 | 445,48   |
| SOLRED                | 98,28    |
| ARGITU                | 172,82   |
| MOVISTAR              | 66,92    |
| MOVISTAR              | 58,40    |
| MOVISTAR              | 84,39    |
| AUDAX                 | 139,83   |
| INFOBIBLIOTECAS       | 260,05   |
| EBA ERKIZIA           | 1.746,94 |
| TOLOMENDI             | 152,50   |
| IZENPE                | 87,01    |
| IZENPE                | 174,02   |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 86,15    |
| EBA ERKIZIA BRION     | 1.032,28 |
| IMPORT-QUIMIA         | 212,43   |
| GAZTEZULO ALDIZKARIA  | 22,00    |



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

|                       |           |
|-----------------------|-----------|
| TOLOSALDEA GARATZEN   | 22.387,42 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 103,31    |
| TOLOMENDI             | 152,50    |
| IZADI                 | 152,94    |
| DIONISIO ORMAZABAL    | 23,82     |
| RECAMBIOS IBARRA      | 106,30    |
| BIDATEK               | 471,90    |
| CORREOS               | 3,53      |
| AUDAX                 | 199,64    |
| AUDAX                 | 57,36     |
| AUDAX                 | 44,29     |
| AUDAX                 | 89,55     |
| AUDAX                 | 259,27    |
| AUDAX                 | 22,21     |
| AUDAX                 | 139,66    |
| AUDAX                 | 301,45    |
| AUDAX                 | 5,93      |
| AUDAX                 | 53,87     |

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **29.706,38** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **TOLOMENDIRI 2016 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2016ko apirilaren 14ean ospatutako Batzar Orokorrean 2016 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2016 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 2.488,64 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2.488,64 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2016 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **M.K.M. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik M.K.M. andreak eginiko eskaera, non 2017 urterako ordenantza fiskaletan, 25 urte baino gehiagoko ibilgailuentzako hobariak onartzeko eskaera egiten duen.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- 2017 urterako ordenantza fiskalak aztertzeko momentua iristean, M.K.M. andreak eginiko eskaera aztertuko dela.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri M.K.M. andreari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO URRUZOLA BASERRIAREN ETXEBIZITZA BERRIAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA ESKAERA, M.A.**

Ikusirik M.A. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Urruzola baserriko 2º etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik eskaerarekin batera obraren behin-betiko planoak, obra amaiera ziurtagiria, elektrizitate eta gas ziurtagiriak aurkeztu dituela.

Ikusirik, 2016ko apirilaren 21ean Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

**“ALKIZAKO URRUZOLA BASERRIKO 2º ETXEBIZITZAREN LEHEN  
ERABILERA  
BAIMEN ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA**

*M.A.A. anderearen Urruzola baserrian dagoen 2º etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera ikusirik, eta 2016-ko apirilaren 21-ean ikuskaritza*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*bisita teknikoa egin ondoren, legeztatutako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen "legeztapen espedienteari" egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.*

*Urruzola baserria, bi etxebizitzekin, erabilera esleitu gabeko lur ez urbanizagarriaren kategoriako gutxienezko 2 hektareako jabetzei lotua geldituko da, itsatsi eta zatiezin modura."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

## ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Alkizako Urruzola baserriko 2<sup>o</sup> etxebizitzaren lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.- M.A. andreari jakitera ematea, Urruzola baserria, bi etxebizitzekin, erabilera esleitu gabeko lur ez urbanizagarriaren kategoriako gutxienezko 2 hektareako jabetzei lotua geldituko dela, itsatsi eta zatiezin modura.

HIRUGARRENGOA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENGOA.-Erabaki honen berri M.A.andreari ematea.

## **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

### **7.1. 2016-KALD-000001 KREDITU ALDAKETA ONESPENARI BURUZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ondoren Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioaren berri ematen da, ondorengoa diolarik:

*"Kreditu aldaketaren espediente kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016ko gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.*

*Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.*

*Dena den, txertaketa espedienteak honako finantziakzioa du :*

*- 2015 eko kreditu gerakina.....3.460,00€*

*Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”*

### **7.2.2016 URTEKO BIZITZA ASEGURU KOLEKTIBOA BERRITZEKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Caser aseguru etxeak Udal langileen bizitza aseguru kolektiboa berritzeko poliza iritsi dela, bere zenbatekoa 1.137,67 eurotako izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Caser aseguru etxeak igorritako Udal langileen bizitza aseguru kolektiboa berritzeko polizaren onespena. Bere zenbateko 1.137,67 euro izanik.

### **7.3. BIXENTE OTEGI LIZASO S.L. ENPRESAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2016ko martxoaren 2an, Alkate-Lehendakariaren ebazpenez onestu zuela Bixente Otegi Lizaso S.L.-ri, Alkizako Errepide Nagusitik Ur Mara eta hainbat sailetara doan bidea konpontzeko kontratua esleitzea, aurkezturiko aurrekontua onestu zelarik. Bere zenbatekoa 11.115,00 zelarik (BEZ gabe).

Ikusirik, aipaturiko lanak bukatu direla, Bixente Otegi Lizaso S.L. -k egin dituen lanen faktura aurkeztu duelarik, bere zenbatekoa 13.448,91 euro izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bixente Otegi Lizaso S.L.-k aurkezturiko faktura onestea, bere zenbatekoa 13.448,91 euro izanik (BEZ-a barne).

BIGARRENA: 13.448,91 eurotako gastua onestea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### **7.4. KIROL BATZORDEAK, 2015 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalak, 2015urtean Kirol Batzordeari 1.920eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Kirol Batzordeak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2015. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengo izanik:

##### **SAN ISIDRO**

Gimkana: 80 €

Mendi Ibilaldia: 70€

Frontenis Txapelketa:

Trofeoak+ gaztak: 250€

Pelotak + nikiak: 100€

Txapelak:360€

##### **HERRIKO FESTAK**

Gaztetxoen Txirringulari proba: 300€

Pelota Txapelketa:

Pelotak: 120€

Trofeoak+gaztak+edariak: 250€

Txapelak:90€

Gaztetxoen Pelota:150€

Toka txapelketa: 90€

##### **SAN MARTIN**

Gaztetxoen Errueda lasterketa: 250€

Mus eta Eskoba Txapelketa: 100€

##### **SAN SILVESTRE**

Gaztetxoen lasterketa: 250€

##### **GASTUAK GUZTIRA: 2.460,00€**

##### **SARRERAK:**

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| UDALETXEA             | 1.920,00 |
| FRONTENIS TXAPELKETA  | 200,00   |
| PELOTA TXAPELKETA     | 80,00    |
| MUS ESKOBA TXAPELKETA | 150,00   |



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**SARRERAK GUZTIRA: 2.350,00€**

**DIFERENTZIA: -110€ DEFIZITA**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo,

**ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA.- Kirol Batzordeak, aurkezturiko 2015. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

#### **7.5. KIROL BATZORDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, 2015 URTEARI DAGOKIONA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Kirol Batzordeak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2016 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2016 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Batzordeari esleitzeko 1.920,00 eurotako partida bat dagoela.

Ikusirik 2016 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Alkizako Kirol Patronatuari 1.920,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2016 urtean prestatu dituzten ekintzak burutu ahal izateko.

BIGARRENA: 1.920,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Batzordeari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Batzordeari ematea.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

#### **8.1. Zurrumurrurik EZ / Red vasca antiRUMORES-i ATXIKIMENDUA**





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ondoren Zurrumurrurik EZ/Red vasca antiRUMORES idatzia aurkezten da non ondorengo dioen:

## **Zurrumurrurik EZ / Red vasca antiRUMORES**

Euskal Herriko hainbat gizarte eta erakunde-ekimenek jarduerak eta programak garatzen jardun dugu 2011. urtetik **Zurrumurrurik EZ / antiRUMORES** deritzon sentsibilizazio sozialerako estrategiaren barruan.

Zurrumurrurik EZ terminoak, Bartzelonako Udalak 2010ean sorturiko marka, BCN anti- RUMORS, du oinarri eta haren finkapen eta hedapen-prozesuan garaturiko metodologietan (estatuko eta Europako lurralde askotara zabaldu direnetan) oinarritzen da.

Gizarte-eraldaketarako estrategia da, giza eskubideen eta kulturartekotasunaren aldeko eta arrazismoaren kontrako ikuspegitik. Etorकिन eta kulturaaniztasunaren inguruko oinarri gabeko zurrumurruiak, estereotipo negatiboak eta aurreiritziak izatea eta zabaltzea oztopo dira pertsonen arteko harremanetarako, intolerantziaren aldeko diskurtsoa elikatzen dute eta, gerora, berdintasunik eza, gizartezatiketa eta diskriminaziorako haztegi bilakatzen dira. Beharrezkoa da pertsonen eta taldeen ideia, ulertzeko modu, estereotipo eta kontzeptuetan eragitea geure gizarte, norbanako eta talde mailako jardunbideetan jarrera-aldaketa eragiteko.

Estrategia honen ezaugarri dira erakunde publikoen, gizarte-erakundeen eta modu pertsonalean parte hartzen duten pertsonen bultzada komuna eta politika publikoen eta herri-mugimenduen ekintzen osagaiak uztartzea.

Zurrumurrurik EZ estrategiak lotura estua dauka genero-ikuspegia, gizarte-inklusio, funtzioaniztasun, erlijio-aniztasun, sexu-orientazio, belaunaldien arteko orientazioarekin eta abarrekin. Izan ere, horietan guztietan dauden estereotipo negatiboak, aurreiritziek eta zurrumurrui faltsuek ondorio negatiboak eragiten dituzte kohesio sozialari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean *Aurre egin zurrumurruari* ekimena abian jarri zuenetik, lantaldea modu jarraituan eta aldian-aldian mantendu da, eta, horri esker, lurraldean eginiko zurrumurruien aurkako ekimen asko elkarrekin lotu ahal izan dira. Horrez gain, estatuko eta nazioarteko antzeko ekimenen arteko loturak eta lan-eremuak ezarri dira, laguntza handia izan dutenak, hala nola, Europako Kontseiluarena eta Integraziorako Europako Funtzarenaren Horriek horrela, \* Sinestuta beharrezkoa dela elkarlanerako gune hau sendotzea sinergiak sortzeko, \* Ustetan garaia dela euskal estrategia desberdinak bateratuko dituen izendapen komun bat sortzeko, \* Partehartzaile bakoitzaren autonomia eta erabiltzen dituen lan metodologia eta tresnak errespetatuz



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gizarte erakunde eta instituzio publiko sinatzaileek erabaki dute **Zurumurrurik EZ / Red Vasca Antirrumores sarea** eratzea, hurrengo helburuekin:

1. Zurumurruen aurkako estrategian, praktika egokien jakintza eta azterketarako gunea izatea, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako prebentzio eta lanarekin batera.
2. Elkarlanean edo koordinaturik lan esperientziak garatu, arreta berrezia jarrita formakuntza prozesuen diseinuari, ezagutzarako dokumentazio eta materialen sorkuntzari, eta zurumurruen aurkako ekintzen katalogo bat garatzeari, zein sareko kideen artean partekatu ahal izango den eta interesgarritzat jo dezaketen erakunde eta instituzioei eskainiko zaien.
3. Kanal bat sustatu, Euskadin sorturiko zurumurruen aurkako esperientzien berri emateko eta haien gizarte eragina biderkatzeko.
4. Gizarte eta instituzio eragile berriak sarera gehitu eta haiekin esperientziak eta helburuak partekatu.

Lankidetzarako gune formalki antolaturiko baten beharra adosteaz gain, eta arearen hirugarren helburuarekin bat, web orri bat martxan jarri domeinuekin. Ondoren aipatzen diren erakunde eta instituzioek agiri hau sinatzen dute **Zurumurrurik EZ / Red vasca Antirrumores** sarearen sortze gutun gisa eta bertan aipatu helburuen alde.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Zurumurrurik EZ/RED VASCA Antirrumores idatziari atxikimendua ematea onesten da.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*